

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

UDAL GOBERNU TALDEAREN GOBERNUAREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ORGANO ARAUDIAREN BETETZE MAILARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udal Gobernu taldearen Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudiaren betetze mailari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 19an, Gobernu Batzordeak agintaldi honetako lehen bilera egin zuen. Bertan jorratutako txostenetako bakar batek ere ez zuen arduradun juridikorik. Jokaera hau ez da batere arrunta Udalaren ohiko jardunean, eta zeharo ezberdina da aurreko agintaldian izandakoarekin alderatuta.

Jokaera honekin, Udal Gobernuak urratu egin du Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudia.

Alkateari honetaz galdera egin zitzaion, eta Viles jaunak jokaera jau "salbuespena" zela eta "ondorio juridikorik" ez zuela izango esan zuen bakar-bakarrik. Baina egia da, ordea, Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudiaren urraketa izan zela, jokaera hura justifikatzen zuen inongo arrazoirik gabe egindakoa.

Argi dago arauak denontzat balio dutela berdin-berdin, eta gobernu taldeak eredu izan behar duela haiek betetzerakoan.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozioa aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Organo Araudiak ezarritakoa bete dezala inongo salbuespenik gabe.

Donostia, 2015eko uztailaren 24an

Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

